

Idazkaritza

**ELORRIKO UDALAREN ETA BAKETIK-EN ARTEKO LANKIDETZA  
HITZARMENA, BIZIKIDETZA- ETA ADISKIDETZE-KULTURAN  
OINARRITUTAKO PROGRAMA BAT GARATZEKO**

Elorrio, 2012ko otsailaren 15a

**PARTE-HARTZAILEAK**

Baketik, Ana Otadui Biteri, Elorrioko alkate anderea, herri honetako Udalaren izenean eta ordezkari izan.

Bestetik, Jonan Fernandez Erdocia, Arantzazu Baketik Fundazioko zuzendaria, haren izenean eta ordezkari izan, Oñatiko notario Mercedes Hernaiz Gomez-Deganok 2006ko ekainaren 21eko eskritura publikoan hari emandako ahala baliatuz. Fundazioa Euskal Herriko fundazio-errodan inskribatua dago, F-193 zenbakiarekin, eta IFK G-20907259 du.

Bi parte-hartzaileek, nor bere erakundeko ordezkari gisa, hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta hau

**ADIERAZI DUTE**

**I.-** 2011. urtearen amaieran, euskal gizartea une historiko bat bizitzen ari da. Hainbat hamarkadaren ondoren, bakearen garaia iritsi da. Testuinguru horretan, epe labur eta ertainera begira, lehentasunezkoa da bakea behin betiko sendotzea. Bizikidetza- eta adiskidetze-kultura sustatzea, hain zuzen ere, bakea lehentasun horri begira garatzea da.

**II.-** Bakea modu itzulezinean sendotzea eta bizikidetza- eta adiskidetze-kultura sustatzea elkarri loturiko helburuak dira, estrategikoak euskal gizartearentzat, eta, horren barruan, baita Elorriorentzat ere. Helburu horiek bete daitezten, beharrezkoa da baliabide egokiak ezartzea eta bakean eta bizikidetzan oinarritutako kulturarekin konpromisoa hartzea, giza duintasunarekiko eta giza eskubideekiko errespetuan hezteko, eta tresna baliagarriak emateko bizikidetzaren zailtasunak eta gatazkak era eraikitzailean bideratzeko.

**III.-** Konpromiso horrek bi eremu ditu: orokorra eta tokikoa. Ezinbestekoa da ordezkari-eremu handiagoko alderdiei eta erakundeei dagozkien erabaki eta jardun handien ekarpen orokorra. Ezinbestekoa da, halaber, gizartea oinarri dela tokian-tokian egindako ekarpenak batzea.

**IV.-** Elorrioko Udala estuki konprometituta dago aipaturiko helburu horiekin, eta bere ekarpena egin nahi du, tokiko esparrutik, bakea eta adiskidetzaren lortzeko helburu globalean.

**V.-** Arantzazu Baketik Fundazioa gatazkak ikuspegi etikotik azter daitezten sustatzeko sortu zen, bai eta prestakuntzako eta dibulgazioko tresnak eskaintzeko ere, bakea sendotzeko, adiskidetzaren laguntzeko eta etorkizunean gatazka suntsitzailerik ez izateko. Gaur egungo

testuinguruan, proposamen zehatz bat prestatu du, hala nahi duten udalei bizikidetza- eta adiskidetzeko-kultura bat sustatzeko politikak egiten laguntzeko eta aholkuak emateko.

Adierazitakoak hala direla, bi alderdiak agiri hau egitea adostu dute, eta honako hauek izango dira

## KLAUSULAK

### Lehenengoa.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da Elorriko Udalaren eta Arantzazu Baketik Fundazioaren arteko lankidetzaren oinarriak ezartzea, Elorrion bizikidetza- eta adiskidetzeko-kultura sustatuko duen jarduketa-programa bat garatzeko, bai eta alderdi bakoitzak xede horretarako bere gain hartuko dituen konpromisoen esparrua arautzeko ere.

### Bigarrena.- Baketik-en konpromisoak

1.- Baketik-ek konpromisoa hartzen du ondoko jarduketa-programa sustatzeko eta dinamizatzeko, gutxi gorabeherako egutegi honekin bat etorritz:

2012	
Lehen lauhilekoa	<ul style="list-style-type: none"><li>-Bi ordutako hasierako saioa Udaleko kargu politikoei programa aurkezteko (Komunikazio publikorik gabe)</li><li>-Programaren aurkezpena jendaurrean honako jarduerekin:<ul style="list-style-type: none"><li>-Herri mailako prentsaurrekoa programa aurkezteko.</li><li>-Hitzaldi-aurkezpen publikoa.</li><li>-Programaren edukia jasotzen duen agiria etxez etxe banatzea.</li></ul></li></ul>
Bigarren lauhilekoa	<ul style="list-style-type: none"><li>-Bizikidetzaren berreadiskidetzeari buruzko informazio- eta formazio-ikastaroak (4 orduko bi ikastaro). Aukerak:<ul style="list-style-type: none"><li>-Herritar guztiei irekitako ikastaroa.</li><li>-Gazteriari eta bere elkarte sareari eskainitako ikastaroa.</li></ul></li></ul>
Hirugarren lauhilekoa	<ul style="list-style-type: none"><li>-10 orduko prestakuntza-programa bat eskaintzea herriko ikastetxe guztietako hezitzaileentzat.</li><li>-Herritar guztiei irekitako metodologia partehartzeilea izango duen saio bat antolatzea aurrera begirako iradokizunak jaso ahal izateko.</li><li>-Ebaluazioa eta jarraipena emateko proposamenak jasoko dituen txostena egitea.</li><li>-Udaleko kargu politikoekin lan-saio bat egitea ebaluazioa eta jarraipen proposamenak jasotzen dituen txostena aurkezteko eta balorazioa egiteko.</li></ul>

2. Hitzarmenarentzat aurreikusitako aurrekontuarekin, Baketik-ek bere gain hartuko ditu gastu hauek: aholku-lanetarako pertsonen arduraldia; planak, agiriak eta testuak prestatzea; hitzaldiak eta ikastaroak ematea; prestakuntza-bileretan parte hartzea; bai eta oro har programaren dinamizazio eta kudeaketa arruntari dagozkionak ere. Gehitutako eta aurrez onarturiko bestelako gastuak, hala nola argitalpenak, etxez etxeko banaketak, publizitatea eta programa garatzeko beharrezkoak diren bestelako zerbitzuen azpikontratazioa Udalar bereizirik fakturatuko zaizkio.

3.- Lauhileko bakoitzaren hasieran, Baketik-ek aldi horri dagokion jarduketa-plan xehatua eta horren aurrekontua aurkeztuko dizkio Udalari, onartu eta baimendu ditzan.

4.- Baketik-ek bere taldeko pertsona bat izendatuko du programako arduradun eta Elorrioko Udalarekin hitz egiteko ordezkari iraunkor gisa.

### **Hirugarrena.- Elorrioko Udalaren konpromisoak**

1. Elorrioko Udalak jarduketa-programa hau garatzeko, 5.700 euroko kopurua aurreikusten du (BEZa barne). Zenbateko hori egindako lanen arabera emango da eta gutxi gora-behera bi horrela izango da:

- %50a 2012ko lehen lauhilekorako bigarren klausulan aurreikusten diren jardueren arabera.
- %25a 2012ko bigarren lauhilekorako bigarren klausulan aurreikusten diren jardueren arabera.
- Gainerako %25a hirugarren lauhilekorako bigarren klausulan aurreikusten diren jardueren arabera.

2. Elorrioko Udalaren kontura izango dira, halaber, aurrez onartu eta baimendutako gastu hauek: argitalpenak, etxez etxeko banaketak, publizitatea eta programa garatzeko beharrezkoak diren bestelako zerbitzuen azpikontratazioa.

3. Elorrioko Udalak gela eta gune egokiak erabiltzen utziko dio Baketik-i, aurreikusitako jarduerak gara ditzan. Orobat, tokiko gizarte-eragileen sarearekin harremanetan jartzen lagunduko dio, programa ondo garatu ahal izan dadin.

### **Laugarrena.- Justifikazioa**

Aurkeztu diren fakturak justifikatzeko, egindako jardueren txosten bat aurkeztuko da. Horren barruan, dokumentu hauek sartuko dira:

- Jarduketa-memoria bat, bigarren klausulan adierazitakoarekin bat etorriz Baketik-ek bere gain hartutako konpromisoak bete dituela justifikatzen duena.
- Jardueraren gastuen zerrenda sailkatu bat, kontzeptua eta zenbatekoa zehaztuta.
- Hitzarmen honetan hitzartutako jardueren esparruan sortutako agirien bina ale.

### **Bosgarrena.- Hitzarmenaren indarraldia**

Hitzarmen hau sinatzen denetik 2012ko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, eta luzatu ahalko da, alderdiak ados badaude.

### **Seigarrena.- Erakunde onuradunaren betebeharrak**

Baketik-ek betebeharrak hauek izango ditu:

- Jardueren komunikazioetan Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak erabiltzen direla bermatzea, tokiko araudian eta orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz.
- Publizitate egokia egitea jarduerak edo jarduketek finantzaketa publikoa dutela jakinarazteko, erakunde emailearen irudi instituzionala txertatuta, eta karteletan, oroitzapenezko plaketan, material inprimatuetan, bide elektronikoa eta ikus-entzunezkoetan nahiz komunikabideetan egindako aipamenetan finantzaketa publikoa dela adierazita.
- Jardueretan hizkuntza ez-sexista erabiliko dela bermatzea.

## **Zazpigarrena. Jarraipen-batzordea**

Xedatutakoa sustatzeko, koordinatzeko eta jarraipena egiteko, bai eta hitzarmena betetzean sor litezkeen gorabeherak interpretatzeko eta ebazteko ere, Jarraipen Batzorde bat sortuko da. Batzorde hori Baketik-eko kide batek eta Elorrioko Udaleko beste kide batek osatuko dute; kideok bi alderdiek izendatuko dituzte.

Eta, ados daudela erakusteko, bi alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan, goian adierazitako lekuan eta egunean.

**Elorrioko alkate anderea**

**Baketik-eko zuzendaria**

**Izp./Fdo.: Ana Otadui Biteri**

**Izp./Fdo.: Jonan Fernandez Erdozia**

## **CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ELORRIO Y BAKETIK PARA EL DESARROLLO DE UN PROGRAMA DE CULTURA DE CONVIVENCIA Y RECONCILIACIÓN**

En Elorrio, a 15 de febrero de 2012

### **INTERVIENEN**

De una parte, Ana Otadui Biteri, Alcaldesa de Elorrio, en nombre y representación del Ayuntamiento de esta localidad.

De otra parte, Jonan Fernandez Erdocia, Director de la Fundación Arantzazu Baketik,, inscrita en el registro de fundaciones del País Vasco con el número F-193 y con CIF nº G-20907259, domiciliada en Gandiaga Topagunea, Arantzazu, 20567, Oñati (Gipuzkoa) y actuando en nombre y representación de la misma en virtud de los poderes otorgados a su favor en escritura pública de 21 de junio de 2006 por la notario de Oñati, Mercedes Hernáiz Gómez-Degano.

Los dos intervinientes, en calidad de representantes de sus respectivas instituciones, se reconocen mutuamente capacidad suficiente para otorgar el presente convenio.

### **EXPONEN**

**I.-** A finales de 2011, la sociedad vasca está viviendo un momento histórico. Después de décadas, se abre paso el tiempo de la paz. En este contexto y con vistas al corto y medio plazo, su consolidación definitiva es una prioridad. Impulsar una cultura de convivencia y reconciliación es un desarrollo de la paz orientado precisamente a esta prioridad.

**II.-** Afianzar de modo irreversible la paz e impulsar una cultura de convivencia y reconciliación son objetivos entrelazados y estratégicos para el conjunto de la sociedad vasca y dentro de ésta también para la ciudadanía de Elorrio. Para poder prestar servicio al cumplimiento de estos objetivos es necesario poner los medios adecuados y asumir un compromiso con una cultura de paz y convivencia que eduque en el respeto a la dignidad humana y los derechos humanos y que ofrezca herramientas útiles para encauzar constructivamente las dificultades y los conflictos de la convivencia.

**III.-** Este compromiso tiene una doble dimensión: global y local. Es imprescindible la contribución global de las grandes decisiones y actuaciones que corresponden a los partidos e instituciones de mayor ámbito representativo. Es indispensable también la suma de aportaciones locales, construidas desde la base de la sociedad.

**IV.-** El Ayuntamiento de Elorrio está estrechamente comprometido con los objetivos mencionados, y tiene la voluntad de hacer su contribución desde el marco local al objetivo global de la paz y la reconciliación.

**V.-** La Fundación Arantzazu Baketik, se creó con la misión de promover el análisis de los conflictos desde un punto de vista ético, y ofrecer herramientas formativas y divulgativas que consoliden la paz, ayuden a la reconciliación y prevengan conflictos destructivos en el futuro. En el actual contexto, ha preparado una propuesta concreta para acompañar y asesorar a los Ayuntamientos que lo deseen en el impulso de políticas orientadas a promover una cultura de convivencia y reconciliación

En base a lo anterior, ambas partes convienen en otorgar el presente documento, con arreglo a las siguientes:

## CLÁUSULAS

### Primera.- Objeto

El objeto de este Convenio es establecer las bases de la colaboración entre el Ayuntamiento de Elorrio, y la Fundación Arantzazu Baketik para desarrollar en Elorrio un programa de actuación orientado al impulso de una cultura de convivencia y reconciliación, así como regular el marco de compromisos que cada parte asume con tal fin.

### Segunda.- Compromisos de Baketik

1.- Baketik se compromete a impulsar y dinamizar el siguiente programa de actuaciones dentro del calendario orientativo en el que se inserta:

2012	
Primer cuatrimestre	<ul style="list-style-type: none"><li>-Sesión inicial de 2 horas para la presentación de los contenidos del programa a cargos políticos del Ayuntamiento. (Sin comunicación pública)</li><li>-Presentación pública del programa que incluye las siguientes actividades:<ul style="list-style-type: none"><li>-Rueda de prensa local con presentacion de la iniciativa.</li><li>-Charla pública de presentación.</li><li>-Buzoneo de un primer folleto explicativo del programa.</li></ul></li></ul>
Segundo cuatrimestre	<ul style="list-style-type: none"><li>-Ofrecer dos cursos de cuatro horas orientados a la información y formación sobre reconciliación de la convivencia. Opciones posibles:<ul style="list-style-type: none"><li>-Un curso abierto a toda la ciudadanía.</li><li>-Un curso centrado en la juventud y su red asociativa</li></ul></li></ul>
Tercer cuatrimestre	<ul style="list-style-type: none"><li>-Ofrecer un programa de formación de 10 horas para los docentes de todos los centros educativos de la ciudad.</li><li>-Organizar un acto abierto a toda la ciudadanía con una metodología participativa para recoger sugerencias de futuro.</li><li>-Elaborar un informe de evaluación y propuestas de continuidad.</li><li>-Celebrar una sesión de trabajo con los cargos políticos del Ayuntamiento para presentar y valorar el informe de evaluación y continuidad.</li></ul>

2. Con el presupuesto previsto para este convenio, Baketik entiende incluidos los gastos derivados de la dedicación de personal a las tareas de asesoramiento, elaboración de planes, documentos y textos, impartición de charlas y cursos, participación en reuniones preparatorias, así como todas aquellas derivadas de la dinamización y gestión ordinaria del programa en su conjunto. Los gastos añadidos y previamente aprobados de edición, buzoneo, publicidad o subcontratación de otros servicios necesarios para el desarrollo del programa serán facturados aparte al Ayuntamiento.

3.- Al principio de cada cuatrimestre, Baketik presentará al Ayuntamiento el plan en detalle de las actuaciones de ese periodo junto a su presupuesto, para que sean aprobados y autorizados por éste.

4.- Baketik designará a una persona de su equipo como responsable del programa e interlocutor permanente ante el Ayuntamiento de Elorrio.

### **Tercera.- Compromisos del Ayuntamiento de Elorrio**

1. El Ayuntamiento de Elorrio prevé para el desarrollo de este programa de actuación una cantidad de 5.700 euros (IVA incluido). Esta cantidad será desembolsada en función de los trabajos realizados que orientativamente pueden ser:

- Un 50% en función de las actuaciones previstas en la cláusula segunda para el primer cuatrimestre de 2012.
- El 25% en función de las actuaciones previstas en la cláusula segunda para el segundo cuatrimestre de 2012.
- El 25% restante en función de las actuaciones previstas en la cláusula segunda para el tercer cuatrimestre de 2012.

2. El Ayuntamiento de Elorrio asumirá así mismo los gastos, previamente aprobados y autorizados, que se deriven de los trabajos de edición, buzoneo, publicidad o subcontratación de otros servicios necesarios para el desarrollo del programa.

3. El Ayuntamiento de Elorrio facilitará a Baketik el uso de salas y espacios adecuados para el desarrollo de las actividades previstas, así como los contactos necesarios con la red de agentes sociales locales para el buen desarrollo del programa.

### **Cuarta.- Justificación**

Las facturas que se presenten, se justificarán mediante la presentación de un detalle de las actividades realizadas, que contendrá:

- Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de los compromisos asumidos por Baketik en virtud de lo señalado en la cláusula segunda.
- Una relación clasificada de los gastos de la actividad con identificación del concepto y de su importe.
- Dos ejemplares de los documentos generados en el marco de las actividades comprometidas en el presente convenio.

### **Quinta.- Vigencia del convenio**

El periodo de vigencia de este convenio será extenderá desde el momento de su firma hasta el 31 de diciembre de 2012 y podrá ser prorrogable si así lo acordasen las partes de mutuo acuerdo.

### **Sexta.- Obligaciones de la entidad beneficiaria**

La entidad Baketik estará obligada a:

- Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones referidas a las actividades, de acuerdo con lo dispuesto en la normativa local y general.
- Dar la adecuada publicidad del carácter público de las actividades o actuaciones objeto del presente convenio, mediante la inclusión de la imagen institucional del Ayuntamiento, así como leyendas relativa a al financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.
- Garantizar el uso de un lenguaje no sexista en las actividades.

### **Séptima. Comisión de seguimiento**

Para el impulso, coordinación y seguimiento de lo dispuesto, así como para la interpretación y resolución de las incidencias que puedan surgir en su ejecución, se crea una Comisión de Seguimiento formada por un miembro de Baketik y otro del Ayuntamiento de Elorrio, que se designarán por ambas partes.

Y, en prueba de conformidad, firman las dos partes el presente convenio, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha arriba indicados.

**La Alcaldesa de Elorrio**

**El director de Baketik**

**Izp./Fdo.: Ana Otadui Biteri**

**Izp./Fdo.: Jonan Fernandez Erdozia**